



GURASO BILERA

BATXILERGOA 1

2023/2024 ikasturtea

AURKIBIDEA

1. AURKEZPENA
2. IRAKASLEAK ETA FAMILIEKIN HARREMANA
3. TALDEKATZEAK ETA ORDUTEGIA
4. EGUTEGIA
5. EBALUAZIOA
6. ORIENTAZIO AKADEMIKOA
7. IRTEERA PROFILA
8. ELKARBIZITZA
9. BATXILERGOKO EGUNEROKO ARAUAK
10. IRTEERAK, JARDUERA OSAGARRIAK ETA OSPAKIZUNAK
11. GURASOEN PARTAIDETZA IKASTOLAN
12. GELAKO GURASO ORDEZKARIAK
13. EUSKARAZ BIZI PROIEKTUA
14. OSASUN ARRETA
15. ERANSKINAK

1. AURKEZPENA

Aurtengo ikasturtean, zuen seme-alabak etapa berri batean murgilduko dira. Edozein etapa-aldaketa bezala, hau ere erronka bat izango da ikasleentzako; hain zuzen, derrigorrezkoa den oinarrizko hezkuntza etapa batetik, hautazkoa den beste batera igaroko baitira.

Batxilergoaren helburua ikasleak ondorengo ikasketetarako prestatzea da (Lanbide Heziketa zikloak nahiz unibertsitateko graduak). Horrek, ezinbestean, eritmo eta exigentzia mailak aregotzea suposatzen duela ukazina da, eta ikasleak, hasiera batean, aldaketa hori nabaritzea ohikoa da. Hala ere, eritmoa hartuz joango dira, eta prozesu horretan tutore eta irakasleak izango dituzte bidelagun.

Aurten ere Batxilergoko ikasleek astean tutoretza ordu bat izango dute esleituta, tutorearekin erlazioa indartu eta informazio-beharrak (edo bestelakoak) haiekin partekatzeko.

2. IRAKASLEAK ETA FAMILIEKIN HARREMANA

Ikasturtean zehar guraso bilera orokor bat egingo dugu. Horretan ikasturteko helburuak, metodologia eta eguneroko dinamikaz arituko gara.

Bakarkako 2 elkarrizketa egingo ditugu gurasoekin ebaluazio-txostenen gaineko azalpenak emateko eta ikaslearen garapenari buruzko informazioa trukatzeko. Bilera horietaz gain, behar adina aldiz elkartuko gara, zuekin egoerak hala eskatuz gero.

Tutorearekin harremanetan jarri edo mezu bat helarazi nahi izanez gero, bere e-postara mezu bat bidali eta ahalik eta azkarren emango zaio erantzuna. Momentuan jaso beharreko mezua balitz, Ikastolako idazkaritzara deitu. Ikasleen bidez oharrak bidaliz gero, hauek idatziz egin beharko dira.

Horrez gain, gogorarazten dizuegu urtean zehar Ikastolak gurasoekin izango duen komunikazio bide nagusia ostiraletan bidaltzen den **ATARIA** astekari digitala dela. Bertan, aurreko astean izandako ekintza nagusien berri emateaz gain, hurrengo egunetan izango

diren gertakariak eta bestelako ohar garrantzitsuak agertzen dira. Hori dela eta, oso garrantzitsua da behar besteko arreta ematea asteroko komunikabide honi. Informazio hori guztiari webgunea gaineratu behar zaio, etengabeko kontsultagai gisa.

ATARIA jasotzen ez baduzue, Alexiarekin gorabeheraren bat egon daiteke eta alexiazalantzak@zurriolaikastola.eus helbidera idatzi beharko zenukete. **Zuen datu pertsonaletan aldaketarik izanez gero,** idatzi ezazue idazkaritzara: idazkaritza@zurriolaikastola.eus

BATXILERGOAREN CURRICULUMAREN ARLOAK ETA IRAKASLEAK

Batx 1 2023-24	1A (28) JOXAN 301	1B (29) NEREA 302	1C (29) ANE 303	ORD
ANATOMIA	AMAIA I. (35) -302			3
BIOLOGIA	USOA (29) - 301			4
BOLUMENA	MARIANA (7) - 211			3
EKONOMIA	ITZIAR (26) - 303			4
EUSKARA I	JOXAN (28) - 301	AITOR (29) - 302	ANE (29) - 303	4
FILOSOFIA	ANA I. (28) - 301 FILOSOFIA 1-1	ANA I. (27) - 302 FILOSOFIA 1-2	DAVID (31) - 303 FILOSOFIA ELE	3
FISIKA-KIM	KOLDO (28) - 301 FIKI 1-1		BEÑAT S.(27) - 301 FIKI 1-2	4
FRANTSESA I	MAURINE (18) - 302			3
GAZTELANIA I	AMAIA D. (28) - 301	AMAIA D. (29) - 302	LOINAZ (29) - 303	3
HEZ. FIS.	ITSASO (28) MANTEO	LOREA (29) MANTEO	LOREA (29) MANTEO	2
HISTORIA	JOXEMARI (26) - 308			4
IEK	ESTI (5) - 210			4
IKT I	IÑIGO (33) - 303 IKT 1-1		IÑIGO (30) - 303 IKT 1-2	4
INGELES I	IÑAKI (28) - 301 INGELES I 1-1	IÑAKI (27) - 302 INGELES I 1-2	DAVID (31) - 303 INGELES I ELE	3
LITE UNIB.	JOXAN (11) - 301			3
MARR. ART I	ESTI (5) - 211			4
MARR. TEK	MARIANA (26) - 302			4
MARR. TEK. DIS.	PIRU (5) - 210			4
MATEMATIKA I	NEREA (28) - 302 MATE Z 1-1	NEREA (27) - 302 MATE Z 1-2	ITZIAR (24) - 303 MATE GZ	4
PROI.ART.	PIRU (8) - 211			3
TEK & ING	KOLDO (30) - 301			3

BATXI 1Ako tutorea: Joxan Oiz Arruti: joiz@zurriolaikastola.eus

BATXI 1Bko tutorea: Nerea Laskurain: nlaskurain@zurriolaikastola.eus

BATXI 1Cko tutorea: Ane Acha: aatxa@zurriolaikastola.eus

KOTUTOREA: Mariana Agirrezabalaga: mariana@zurriolaikastola.eus

Gainerako irakasleen helbideak *Ikastolaren* webgunean dituzue ikusgai.

C1 AGIRIRAKO PRESTAKUNTZA

Ikasturte honetan ere, euskarazko C1 titulua lortu ahal izateko lanketa ohiko eskola jardunean egingo da, Euskara eta Literatura arloan.

Kostu ekonomikoari dagokionez, ikasleek 20€ ordaindu beharko dituzte C1 maila helburu duen ikastaroan matrikulatzeagatik. Ordainketa kolpe bakarrean eta euskarako irakasleek zuen seme-alabei adieraziko dien Ikastolen Elkarteko webgunean burutu beharko duzue.

3. TALDEKATZEAK ETA ORDUTEGIA

DBHtik Batxilergorako jauzi honetan, zuen seme-alabek nabaritu duten beste aldaketetako bat taldekatze berriak izan dira. Aurreko zikloko taldekatzeak desegin, eta berriak sortu ditiugu hainbat irizpide jarraituz (besteak beste, aukeragaien eta modalitateen arteko oreka), eta ikasle berriak ere hartu ditugu.

Hauk izango dira Batxi 1en aurten ditugun hiru taldeen ordutegiak:

ORDUTEGIAK

BATX 1A (301) 2023-2024

	Astelehena			Asteartea			Asteazkena			Osteguna			Ostirala		
8:00 8:55	303 210 301 302	HISTORIA IEK BIOLOGIA MARRAZK. TEK	Joxemari Esti Usaa Mariana	303 210 301 302	HISTORIA IEK BIOLOGIA MARRAZK. TEK	Joxemari Esti Usaa Mariana	302 303 303 301	FILOSOFIA 1-2 INGELES A ELE INGELES A 1-1	Ana David Iñaki	301 303 303 302	FILOSOFIA 1-1 FILOSOFIA ELE INGELES A 1-2	Ana David Iñaki	301	EUSKARA	Joxan
8:55 9:50	303 301 302 211	MATE GZ FIKI 1-2 MATE Z 1-1 MARRAZ. ART	Itziar Koldo Nerea Esti	301	GAZTELANIA	Amala D	301 303 302	FILOSOFIA 1-1 FILOSOFIA ELE INGELES A 1-2	Ana David Iñaki	302 301 303 210	MATE Z 1-2 FIKI 1-1 EKONOMIA MAR. TEK. DIS.	Nerea Beñat S. Itziar Piru	303 210 301 302	HISTORIA IEK BIOLOGIA MARRAZK. TEK	Joxemari Esti Usaa Mariana
9:50 10:10															Amala D
10:10 11:00	301	EUSKARA	Joxan	302 301 303 210	MATE Z 1-2 FIKI 1-1 EKONOMIA MAR. TEK. DIS.	Nerea Beñat S. Itziar Piru	302 301 303 210	MATE Z 1-2 FIKI 1-1 EKONOMIA MAR. TEK. DIS.	Nerea Beñat S. Itziar Piru	301	EUSKARA	Joxan	301 211 302 303	TEKN & ING PROL. ARTISTIKO FRANTSESA IKT 1-2	Koldo Piru Mauriñe Iñigo
11:00 11:50	301	GAZTELANIA	Amala D	301	EUSKARA	Joxan	301 211 302 303	TEKN & ING PROL. ARTISTIKO FRANTSESA IKT 1-2	Koldo Piru Mauriñe Iñigo	301	TUTORETZA	Joxan	301	GAZTELANIA	Amala D
11:50 12:40	302 301 211 303	ANATOMIA LITE UNIBERTS. BOLUMENA IKT 1-1	Amala I Joxan Mariana Iñigo	303 301 302 211	MATE GZ FIKI 1-2 MATE Z 1-1 MARRAZ. ART	Itziar Koldo Nerea Esti	303 301 302 211	MATE GZ FIKI 1-2 MATE Z 1-1 MARRAZ. ART	Itziar Koldo Nerea Esti	301 211 302 303	TEKN & ING PROL. ARTISTIKO FRANTSESA IKT 1-2	Koldo Piru Mauriñe Iñigo	302 301 303 210	MATE Z 1-2 FIKI 1-1 EKONOMIA MAR. TEK. DIS.	Nerea Beñat S. Itziar Piru
12:40 13:10															Altor
13:10 14:05	301	HEZIKETA FISIKOA	Itsaso	302 303 301	FILOSOFIA 1-2 INGELES A ELE INGELES A 1-1	Ana David Iñaki	302 301 211 303	ANATOMIA LITE UNIBERTS. BOLUMENA IKT 1-1	Amala I Joxan Mariana Iñigo	303 301 302 211	MATE GZ FIKI 1-2 MATE Z 1-1 MARRAZ. ART	Itziar Koldo Nerea Esti	302 301 211 303	ANATOMIA LITE UNIBERTS. BOLUMENA IKT 1-1	Amala I Joxan Mariana Iñigo
14:05 15:00	301	HEZIKETA FISIKOA	Itsaso	301 303 302	FILOSOFIA 1-1 FILOSOFIA ELE INGELES A 1-2	Ana David Iñaki	303 210 301 302	HISTORIA IEK BIOLOGIA MARRAZK. TEK	Joxemari Esti Usaa Mariana	302 303 303 301	FILOSOFIA 1-2 INGELES A ELE INGELES A 1-1	Ana David Iñaki			
13:10 14:05	302	HEZIKETA FISIKOA	Lorea	303 301	INGELES A ELE INGELES A 1-1	David Iñaki	301 211 303	LITE UNIBERTS. BOLUMENA IKT 1-1	Joxan Mariana Iñigo	301 302 211	FIKI 1-2 MATE Z 1-1 MARRAZ. ART	Koldo Nerea Esti	301 211 303	LITE UNIBERTS. BOLUMENA IKT 1-1	Amala I Joxan Mariana Iñigo
14:05 15:00	302	HEZIKETA FISIKOA	Lorea	301 303 302	FILOSOFIA 1-1 FILOSOFIA ELE INGELES A 1-2	Ana David Iñaki	303 210 301 302	HISTORIA IEK BIOLOGIA MARRAZK. TEK	Joxemari Esti Usaa Mariana	302 303 303 301	FILOSOFIA 1-2 INGELES A ELE INGELES A 1-1	Ana David Iñaki			

BATX 1C (303)
2023-2024

	Astelehena			Asteartea			Asteazkena			Osteguna			Ostirala		
8:00 8:55	303 210 301 302	HISTORIA IEK BIOLOGIA MARRAZK. TEK	Joxemari Esti Usoa Mariana	303 210 301 302	HISTORIA IEK BIOLOGIA MARRAZK. TEK	Joxemari Esti Usoa Mariana	302 303 301	FILOSOFIA 1-2 INGELES A ELE INGELES A 1-1	Ana David Iñaki	301 303 302	FILOSOFIA 1-1 FILOSOFIA ELE INGELES A 1-2	Ana David Iñaki	303	EUSKARA	Ane
8:55 9:50	303 301 302 211	MATE GZ FIKI 1-2 MATE Z 1-1 MARRAZ. ART	Itziar Koldo Nerea Esti	303	GAZTELANIA	Loinaz	301 303 302	FILOSOFIA 1-1 FILOSOFIA ELE INGELES A 1-2	Ana David Iñaki	302 301 303 210	MATE Z 1-2 FIKI 1-1 EKONOMIA MAR. TEK. DIS.	Nerea Beñat S. Itziar Piru	303 210 301 302	HISTORIA IEK BIOLOGIA MARRAZK. TEK	Joxemari Esti Usoa Mariana
9:50 10:10															
10:10 11:00	303	HEZIKETA FISIKOA	Lorea	302 301 303 210	MATE Z 1-2 FIKI 1-1 EKONOMIA MAR. TEK. DIS.	Nerea Beñat S. Itziar Piru	302 301 303 210	MATE Z 1-2 FIKI 1-1 EKONOMIA MAR. TEK. DIS.	Nerea Beñat S. Itziar Piru	303	EUSKARA	Ane	301 210 302 303	TEKN & ING PROI. ARTISTIKO FRANTSESA IKT 1-2	Koldo Piru Mauriñe Iñigo
11:00 11:50	303	HEZIKETA FISIKOA	Lorea	303	EUSKARA	Ane	301 211 302 303	TEKN & ING PROI. ARTISTIKO FRANTSESA IKT 1-2	Koldo Piru Mauriñe Iñigo	303	TUTORETZA	Ane	303	GAZTELANIA	Loinaz
11:50 12:40	302 301 211 303	ANATOMIA LITE UNIBERTS. BOLUMENA IKT 1-1	Amalia I Joxan Mariana Iñigo	303 301 302 211	MATE GZ FIKI 1-2 MATE Z 1-1 MARRAZ. ART	Itziar Koldo Nerea Esti	303 301 302 211	MATE GZ FIKI 1-2 MATE Z 1-1 MARRAZ. ART	Itziar Koldo Nerea Esti	301 211 302 303	TEKN & ING PROI. ARTISTIKO FRANTSESA IKT 1-2	Koldo Piru Mauriñe Iñigo	302 301 303 210	MATE Z 1-2 FIKI 1-1 EKONOMIA MAR. TEK. DIS.	Nerea Beñat S. Itziar Piru
12:40 13:10															
13:10 14:05	303	EUSKARA	Ane	302 301 303	FILOSOFIA 1-2 INGELES A ELE INGELES A 1-1	Ana David Iñaki	302 301 211 303	ANATOMIA LITE UNIBERTS. BOLUMENA IKT 1-1	Amalia I Joxan Mariana Iñigo	303 301 302 211	MATE GZ FIKI 1-2 MATE Z 1-1 MARRAZ. ART	Itziar Koldo Nerea Esti	302 301 211 303	ANATOMIA LITE UNIBERTS. BOLUMENA IKT 1-1	Amalia I Joxan Mariana Iñigo
14:05 15:00	303	GAZTELANIA	Loinaz	301 303 302	FILOSOFIA 1-1 FILOSOFIA ELE INGELES A 1-2	Ana David Iñaki	303 210 301 302	HISTORIA IEK BIOLOGIA MARRAZK. TEK	Joxemari Esti Usoa Mariana	302 303 301	FILOSOFIA 1-2 INGELES A ELE INGELES A 1-1	Ana David Iñaki			

4. EGUTEGIA

EGUTEGIA 2023/2024
BATXILERGOA 1

IRAILA						
				1	2	3
4	5	6	7	8	9	10
11	12	13	14	15	16	17
18	19	20	21	22	23	24
25	26	27	28	29	30	

URRIA						
						1
2	3	4	5	6	7	8
9	10	11	12	13	14	15
16	17	18	19	20	21	22
23	24	25	26	27	28	29
30	31					

AZAROA						
		1	2	3	4	5
6	7	8	9	10	11	12
13	14	15	16	17	18	19
20	21	22	23	24	25	26
27	28	29	30			

ABENDUA						
				1	2	3
4	5	6	7	8	9	10
11	12	13	14	15	16	17
18	19	20	21	22	23	24
25	26	27	28	29	30	31

URTARRILA						
1	2	3	4	5	6	7
8	9	10	11	12	13	14
15	16	17	18	19	20	21
22	23	24	25	26	27	28
29	30	31				










OTSAILA						
			1	2	3	4
5	6	7	8	9	10	11
12	13	14	15	16	17	18
19	20	21	22	23	24	25
26	27	28	29			

MARTXOA						
				1	2	3
4	5	6	7	8	9	10
11	12	13	14	15	16	17
18	19	20	21	22	23	24
25	26	27	28	29	30	31

APIRILA						
1	2	3	4	5	6	7
8	9	10	11	12	13	14
15	16	17	18	19	20	21
22	23	24	25	26	27	28
29	30					

MAIATZA						
		1	2	3	4	5
6	7	8	9	10	11	12
13	14	15	16	17	18	19
20	21	22	23	24	25	26
27	28	29	30	31		

EKAINA						
				1	2	
3	4	5	6	7	8	9
10	11	12	13	14	15	16
17	18	19	20	21	22	23
24	25	26	27	28		

	Ikasturte hasiera/bukaera
	Asteburu, jai egun eta oporraldiak
	Erroka
	Ebaluazio azterketak
	Buletinak Alexian
	Errekerazioak
	Ohiko deialdiko azterketak
	Aparteko deialdiko azterketak
	Irteerak

5. EBALUAZIOA

Batxilergoko maila guztietan hiru ebaluazio egingo dira ikasturtean zehar. Bestalde, lehen ebaluazioaren erdialdera, ikasle bakoitzari buruzko informazio-bilketa ere egiten du tutoreak.

Ebaluazioaren notifikaziorako tresna Alexia programa izango da. Ebaluazioko **azterketak** data hauetan izango dira:

1. Ebaluazioa	Azaroaren 9tik 15era
2. Ebaluazioa	Otsailaren 1etik 7ra
3. Ebaluazioa	Maiatzaren 9tik 15era
OHIKO DEIALDIA	Maiatzaren 20tik maiatzaren 24ra
APARTEKO DEIALDIA	Ekainaren 10etik 14ra

Buletina honako data hauetan argitaratuko da:

1. Ebaluazioa	Azaroaren 24an (Alexian)
2. Ebaluazioa	Otsailaren 19an (Alexian)
3. Ebaluazioa	Notak gelan edo ikasgai bakoitzaren Classroomean jarriko dira. Buletinik ez.
OHIKO DEIALDIA	Maiatzaren 28an (Alexian)
APARTEKO DEIALDIA	Ekainaren 18an (Alexian)

ERREKUPERAZIOAK

Ebaluazioetan gairitu gabeko arloen errekupeazio probak ondorengo datetan egingo dira:

1. Ebaluazioa	Azaroaren 27tik abenduaren 4ra
Buletina	Abenduaren 13an
2. Ebaluazioa	Otsailaren 26tik martxoaren 5era
Buletina	Martxoaren 8an
1., 2. eta 3. Ebaluazioak	Ohiko deialdian
Buletina	Maiatzaren 28an

* 1. eta 2. ebaluazioko errekupeazioak arratsaldean egingo ditugu.

AZTERKETA BERRIKUSKETA EGITEKO PROZEDURA

Ikasleek edo beren guraso edo ordezkari legalek eskubidea dute euren kalifikazioan eragina izango duen edozein azterketa edo idatzizko proba zuzenduta eta kalifikatuta ikusteko.

- Eskaera idatziz egingo dute azterketa zuzenduta jaso eta aste bete pasa baino lehen.
- Ez da eskaera orokorrik onartuko eta ariketa edo proba bakoitzarentzat eskaera bat aurkeztu beharko da.

EBALUAZIOAREN INGURUKO ERREKLAMAZIOA EGITEKO PROZEDURA

Kalifikazioak (partzialak edo behin betikoak) jakitera eman ondoren, ikasleek 2 laneguneko epea izango dute kalifikazio horien aurkako erreklamazioak aurkezteko inplikaturako irakasleari, eta honek 2 laneguneko epean erantzungo dio erreklamazioari.

Ikaslea ados ez badago, honela jokatu beharko du:

- Ebaluazio partzialak:

Erreklamazioa tutorearen aurrean egingo da, eta tutoreak ikasketa buruari adieraziko dio, berak dagokion irakaslearekin hitz egingo du, dagozkion azalpenak jasotzeko. Ikasketa buruak kontsulta egin diezairoke ikasgaiaren departamendu taldeari, egoki baderitzo.

- Azken ebaluazioa:

Ohiko deialdiari dagozkion kalifikazioen aurkako erreklamazioak idatziz aurkeztu beharko zaizkio zuzendariari (zuzendaria@zurriolaikastola.eus), kalifikazioa jaso eta 2 laneguneko epean.

6. ORIENTAZIO AKADEMIKOA

Batxilergoko orientazio akademikoa 2. mailan egiten da nagusiki (Batxilergo ondorengo ikasketak, Unibertsitatea, Heziketa Zikloak, USEren ezaugarriak).

Hau da Batxilergo 1. mailan ikasleei eta gurasooi eskainiko zaizuen:

- Bigarren hiru hileroan ikasleekin bilera bat egingo dugu. Gaiak: Batxilergoko 2. mailan aukeratu behar dituzten ikasgaiak eta ondorengo ikasketekin duten erlazioa.
- Batxilergoko ikasleek EHUko jarduera praktikoetan parte har dezakete, bertako titulazio batzuk ezagutzeko (izena emateko epean ikasleak informatuko ditugu).
- Batxilergoko 2. mailakoei ikastolan eskaintzen zaizkien unibertsitate edo beste zentroetako informazio saioretara 1. mailako ikasle eta gurasoak ere gonbidatuta daude (bilera hauek euskaraz dira).

- Gogoratu batez ere fakultate pribatuek (Deusto, MU,..) eta Lanbide Heziketako zentroek ate ireki saio ugari eskaintzen dituztela. Ikasleek pasilloko paneletan izango dute saio horien berri, bestela webguneetan begiratuta.
- Classroom aplikazioko ikasgela birtualean informazioa izango dute eskuragarri.

Orientatzaile akademikoa: orientazioakademikoa@zurriolaikastola.eus

(Itziar Leon)

7. IRTEERA PROFILA

Ikasle batek Zurriola Ikastolan egin dezakeen ibilbidean, maila eta hainbat etapa pasako ditu. Ibilbide guzti horretan bere garapen integrala lortzea da gure helburua. Horretarako **Zurriolako Ikaslearen Irteera Profila** definitu genuen Ikastolako guraso eta irakasleen artean. Ikastolako hautu pedagogikoa eta jarduna Zurriola Ikastolako Ikasle orok garatu beharreko ezaugarri horietara bideratuta dago.

Hauek dira Zurriolako Ikaslearen Irteera Profilaren ezaugarriak (ZIIP):

- EUSKALDUN EUSKALTZALEA
- KOMUNIKATZAILE ELEANITZA
- BIZIKIDETZAREN SUSTATZAILEA
- INGURUMENAREKIKO ERRESPETUAREKIN KONPROMETITUA
- OSASUN OREKA BILATZEN DUENA
- JAKIN-MINA DUENA
- AUTONOMOA
- KOOPERATIBOA
- KRITIKOA
- EKINTZAILEA
- SORTZAILEA
- BALIABIDE TEKNOLOGIKO ETA DIGITALEN ERABILTZAILE ERAGINKOR ETA ARDURATSUA

8. ELKARBIZITZA

Alor honek berebiziko garrantzia du gure egunerokoan. Ikasleen ikasketa-prozesua behar bezala eman dadin, inguru seguru batetan sentitzea ezinbestekoa da, non errespetuzko jokabideak soilik onartuko diren. Ildo honetan, azken urteetako ekimenei jarraipena emanaz, beste pauso bat eman dugu. Alde batetik, Haur Hezkuntzan EHLko Kuku programa abian dugu, ikasleen emozioak landuta, hauen adierazpena eta kudeaketa hobetzeko asmoz. Bestetik, LH1en hasita eta DBH3. maila bitarte KiVa programa dugu martxan.

Zurriola, Kiva Ikastola

Zurriola KiVa Ikastola da 2021-2022 ikasturtea geroztik. Finlandiako unibertsitateak garatutako programa honek ikastolako gazte era nerabeen artean eman daitekeen jazarpena prebenitu, detektatu eta beharrezkoa denean eskua-hartzea du helburu. Funts teoriko sendoak izateaz gain, hainbat ikastoletan egiaztaturiko programaren emaitza positiboak ere aipagarriak dira.

9. BATXILERGOKO EGUNEROKO ARAUAK

Ikasleen arautegia Zurriolako web-orrian duzue eskura. Hala ere, egunerokoan duten intzidentziagatik, hemenxe aipatzen dizkizuegu zenbait:

- **Puntualitatea:** Ikaslea berandu heltzen denean, atea jo eta irakasleak ez badio sartzeko baimenik ematen, zaintza-gelara joan beharko du. Joan ezean, justifikatu gabeko hutsegitezat hartuko da. Klase tarteetan edo jolas garaiaren ondoren gertatzen bada eskola orduz kanpo errekueratu beharko du galdutako denbora, lehenengotik Batxilergoan eta hirugarrenean DBHn.
- Ikastolara ekartzen den materiala (sakelekoak, liburu elektronikoa,...) ikaslearen ardurapean dago, hala ere, komenigarria litzateke gisa honetako materiala ikastolara ez ekartzea.
- **Sakelekoa (mugikorra) eta bestelako gailu elektronikoak** ezin dira ikastolako eremu osoan erabili, ezta eskola-orduetatik kanpo ere. Erabiltzen ari ez dela hots egiten badu,

irakasleak gailua jaso eta egunaren amaieran itzuliko dio. Erabiltzen ari baldin bada, bi egunez jasoko du irakasleak.

Ezin dira besteen irudiak (ezta audio grabaketak ere) baimenik gabe hartu, partekatu edota erabili.

- **Ordenagailuak** ikastolarenak dira, baina ikasleek ordenagailu bana esleituta izango dute, eta berena balitz bezala zaindu eta erabiliko dute. Gailu hauek ezingo dira etxeetara eramane, eta egunero kargatzen utzi beharko dituzte ikasleek. Dispositibo hauen intzidentziak Ikastolan bertan kudeatuko dira. Gailuarekin arazoren bat izanez gero, Ikastolako IKT Taldeak kudeatuko du arazoa eta konponketa. Kontrataturako bermeak barne hartzen ez dituen konponketak, gurasoek beren gain hartu beharko dituzte. Ordenagailua lanerako materiala da. Irakasleak esaten duenean irekiko dute ikasleek, eta irakasleak esaten duenean itxi egingo dute. Klase tarteetan ez dute erabiliko. Ordenagailua ez dute lanerako ez den ezertarako erabiliko.

- **Asistentzia-hutsegiteak.** Asistentzia-hutsegitearen justifikazioa eskola-agendan edo mezu elektronikoko bidez helaraziko zaio arloko irakasle eta tutoreari. **Ahal den guztietan aurrez egitea eskatzen dizuegu.**

* Ikasgai batean justifikatu gabeko asistentzia-hutsegiteak %15 baino gehiago badira, ikasgai horretako azterketa egiteko eskubidea galduko du ikasleak.

- Eskola orduetan **ikastolatik ateratzeko** gurasoen baimen idatzia beharko da **aldez aurretik**.

- **Aste egitaraua.** Ikasleak bere lanak antolatzeko tresna da. Txukun erabiliz gero oso tresna egokia da eta ikasketetan laguntzen du.

- Proba egunetan aurreko saiora/saioetara justifikaziorik gabe huts egiten duenak, ezingo du proba egin.

- Berreskuraketa egunetan probak arratsaldean izango dira. Goizeko saioen batera justifikaziorik gabe huts egiten duenak, ezingo du probarik egin.

Aipatutako arauak ikastolaren eguneroko funtzionamendurako ipinitakoak dira. Arau horiek elkarbizitza eta ikastolako helburuen lorpenera bideratuta daude. Ondorioz, guztiok errespetatu eta errespetarazi behar ditugu.

JANGELA ZERBITZUA ERABILTZEN DUTEN IKASLEEK BETE BEHARREKO ARAUAK

- Ikasleek jangelan bazkaldu behar ez duten egunetan, gurasoek aurrez adierazi beharko dute Hurrako jangelara deituta edo jangelahurra@zurriolaikastola.eus helbidera idatzita.
- Jangelako erabiltzaileek ikastolako araudia errespetatu beharko dute.
- Batxilergoko ikasleek 12:40ak aldera bazkalduko dute.
- Ikasleak elikagaiekin loturiko arazorik duen kasuetan (alergia, intolerantziak...), eta Hurrako jangelan lehen aldiz gelditzen bada (DBH 1ekoa delako edo orain arte jangelakoa ez zelako), edo arazoa berria bada, osasun fitxa betetzeaz gain, jangelako arduradunekin harremanetan jartzea eskatzen dizuegu.

10. IRTEERAK, JARDUERA OSAGARRIAK ETA OSPAKIZUNAK

IRTEERAK:

Ikasturtean zehar hainbat irteera egin ohi dira urtero, goiz-pasa, egun-pasa edo egun batzuetakoak. Horietako batzuk helburu akademikoekin lotura zuzena dute, beste batzuek, ordea, elkarbizitzarekin edo bestelako zehar konpetentziekin.

Irteerak eskola-jarduerak dira, eta, horregatik, ikasle guztiak behartuta daude horietan parte hartzera. Ikasleak joan ezin duenean, beste edozein asistentzia-hutsegite bezala justifikatu beharko dute gurasoek, eta jakin bezain laster adieraztea eskertuko genizueke, irteeraren antolaketa oztopa ez dezan. Autobusaren gastua ikasle guztien artean banatuko da. Gainerako gastuei dagokienean, diru-itzulketak egingo zaie joan ez diren ikasleei, posible den neurrian.

Ikasturtean zehar zenbait irteera egingo ditugu, hainbat helbururekin: kohesioa lantzeko, Donostiako txokoak ezagutzeko, kultur-jarduera desberdinak egiteko, jarduera fisikoaz gozatzeko... **ATARIA** astekari digitalaren bidez emango dizuegu irteera horien berri, eta

kosturik balute, errezibo bidez kobratuko zaizkizue. Lehena, irailaren 26an egingo dugu, gelaka, eta helburua ikasleen arteko harremanak sendotzea da.

JARDUERA OSAGARRIAK

Ikasturtean zehar, hainbat ekintza gauzatu ohi ditugu ikasgai jakin batzuetako eduki eta konpetentziak lantzeko, bai eta zeharkako konpetentziak lantzeko ere. Ekintza horietako batzuk Ikastolan bertan egiten dira, eta beste batzuk, aldiz, ikastolatik kanpo. Aurten burutuko ditugun ekintzen berri ematen joango gara.

OSPAKIZUNAK

Ikasturtean zehar, Euskal Herriko eta Donostiako kultura ondarearen ezaugarri diren hainbat ospakizun burutzen ditugu. Gure gizartearen kultur-adierazpen hauek ikasleak ezagutzea eta horiekiko jakin-min eta begirunea izatea ikastolaren xedeetako bat da. Hortaz gain, momentu aproposak izaten dira Ikastolako ikasle, irakasle eta familiak elkartzeko eta gure kultura eta izaera auzora zabaltzeko. Horien berri data gerturatu ahala emango dizuegu.

Ospakizun hauek hurrengo datetan egitea aurreikusten dugu:

- Euskararen eguna: abenduaren 1ean
- SanTomas: abenduaren 20an
- Gabon eguna: abenduren 24an
- Danborrada: urtarrilaren 19an
- Kaldereroak: otsailaren 2an*
- Korrika: martxoaren 14tik 24ra bitarte, data zehaztear
- Inauteriak: otsailaren 9an (mozorro librea)
- Ikastolaren Eguna: zehazteke

*Ohikoa den moduan, Kaldereroak eta Inauterien artean astebeteko epea soilik dagoenean, bigarren honen konpartsa bertan behera gelditzen da. Ondorioz, 2024. urtean ez ditugu Euskal Inauteriak ospatuko.

Ikasleak danborrada, kaldereroak eta inauteriak ospatzen ditugun egunetan, arratsaldeko ospakizunetara boluntario etorriko dira. Gure aldetik ekintza hauetan parte hartzera animatu nahi ditugu, euskal nortasuna bultzatuko duen beste ekintzetan parte hartzera bultzatuko ditugun bezalaxe.

Boluntarioki parte hartuko dutenen zerrenda aurrez eskatuko da, eta jaialdian parte hartzeko konpromisoa eskatuko zaie, baita prestatzeko egin behar diren jarduerak egiteko ere.

11. GURASOEN PARTAIDETZA IKASTOLAN

Gurasoak Zurriola Ikastola IKE kooperatibako partaide nagusiak izanik, Ikastolaren norabide estrategikoaren ardatza dira, besteak beste, Batzarra, Artezkaritza Kontseilua eta Eskola Kontseiluaren bidez. Aldi berean, gurasoek partaidetza hori areagotzeko aukera dute Olarizuren bidez. Olarritzu IGE Zurriola Ikastolako ikasleen guraso-elkartea da. Ikastolaren kooperatiba-izaera bultzatu nahian, bazkide guztion partaidetza sustatu nahi du, bi helbururekin: ikastola osatzen dugun kolektibo guztien arteko harremana sendotzea eta, auzolana bultzatuz, gure seme-alabentzat eredu izatea.

Martxan dauden eta sortu daitezkeen ekimenak aurrera eramateko eta koordinatzeko, batzordeak osatu dira. Batzorde horietan gurasoak dabilta jarduera hauek antolatu eta hobetu nahian. Batzordeak proposamenak egin eta lantzeko prest dauden guraso guztientzat daude irekita. Gaur egun, ondorengo guraso-batzordeak daude martxan: Euskara Batzordea, Jai Batzordea, Kirol Batzordea, Komunikazio Batzordea, Haurren Danborrada Batzordea, Helduen Danborrada Batzordea, Zurrimendi, Mugikortasun Batzordea eta Jangela Batzordea. Batzorde hauetako batean parte hartu nahi izanez gero, ondorengo helbidean harremanetan jarri. Ikastola GUZTIOK, GUZTIONA, GUZTIONTZAT baita.

artezkaritza@zurriolaikastola.eus

Bestalde, zuen seme-alaben heziketa integralean Ikastola eta familien arteko elkarlana ezinbestekoa dela ulertzen dugun heinean, ildo berean joan ahal izateko guraso-eskola saioak eskaintzen ditugu urtero. Unean uneko gaiak eta datak jakin bezain laster, haien berri emango dizuegu.

BIGARREN HEZKUNTZAKO BATZORDEA: IKASLE, IRAKASLE ETA GURASOAK ELKARTZEN DITUEN BATZORDEA

Ikasleek Ikastolaren jardunean eta kudeaketan parte hartzea da batzorde honen helburua. Horren bidez, ikasleak Ikastolako partaide arduradun izan daitezten bultzatu nahi da, Ikastolaren helburu nagusiak hedatu eta garatzeko ekimenak proposatuz, bultzatuz eta antolatuz.

Batzorde honetan BHko araudia, eskola-antolakuntzako gaiak, irteerak, hutsegiteak eta, oro har, etapa honetako ikasleei dagozkien gaiak aztertu, erabaki edota dagokionari aurkeztu eta proposatzen dira.

Batzorde honen **partaideak** honela banatzen dira:

- Ikasleen ordezkariak 18 (gela bakoitzetik ordezkari bana).
- Gurasoen ordezkariak 6 (maila bakoitzetik guraso ordezkari bat).
- Irakasleen 3 ordezkari: Maddalen Acero, Aitor Artola eta Amaia Donés.

Ikasleen ordezkari aukeraketa

Batxilergoko ikasle talde bakoitzak bere ordezkariak aukeratzen ditu, bata izenduna eta bestea ordezkoa.

12. GELAKO GURASO ORDEZKARIAK

Gurasoen partaidetzarekin jarraituz, gela bakoitzean guraso ordezkari bana eta ordezkari bat aukeratuko da. Ordezkari horiek bitartekari lanak egingo dituzte Ikastola eta gurasoen artean ikasturteko harremanak ahalik eta egokienak izan daitezzen. Hori dela eta, Ikastolarekin eta Ikastolarentzat lan egiteko prest dauden guraso dinamikoak eta boluntarioak behar dira. Guraso hauek beste gurasoak dinamizatu, koordinatu, proposamenak jaso, bideratu eta tutore, kudeaketa talde, zuzendaritza pedagogiko eta Artezkaritza Kontseiluko kide eta Batzordeen arteko harremana sustatu eta zainduko dute. Guraso boluntariorik ez balego, ikasturte hasierako guraso bileran zozketaz aukeratuko dira guraso ordezkariak eta hauen ordezkooak. Zozketatik salbuetsiko dira lehendik ordezkari izandakoak.

2020-2021 ikasturtean, guraso ordezkarien papera definitu eta indartu nahian, hauen funtzioak, lan-dinamika eta antolaketa moduak berraztertu eta berregokitu ziren. Adostutako informazioarekin txosten bat osatu zen, ordezkari berriekin partekatuko dena, lehen bilerara deituak izan aurretik.

Bigarren Hezkuntzako Batzordean parte hartuko duten gurasoak

Gorago azaldu dugun moduan, BHko ikasle, guraso eta irakasleen Batzordean 6 gurasok hartuko dute parte, maila bakoitzeko banak.

Gurasoen ordezkariak ikasturte hasierako guraso bileran aukeratuko dira mailako hiru geletako gurasoen artean. Hautagaiek bi baldintza hauek bete behar dituzte:

- Euskarazko komunikazioan moldatzea
- Bileretara joan ahal izatea

Batzordeko bilerak hiruhilekoan behin izan ohi dira dira.

13. EUSKARAZ BIZI PROIEKTUA

Zurriola Ikastolako sorrera-helburua euskara eta euskal kulturaren transmisioa eta sustapena dira. Areago, Zurriolako ikaslearen irteera-profileko lehen ezaugarria *euskaldun euskaltzalea* izatea da. Hortaz, horretan saiatzen gara bai gelan baita gelaz kanpo ere.

Proiektu honen helburu nagusia ikastolako partaide guztiengan, ikasle, langile eta gurasoengan euskararen erabilera sustatu eta eragitea da. Helburua partaide guztien artean euskara normaltasunez erabiltzea da. Horretarako plangintza zehatzak bultzatzen ditu proiektu honek.

Irakasle eta langile guztiok konpromiso argia hartzen dugu proiektu honen alde eragiteko, baita dagozkigun arloetan formazioa hobetzen jarraitzeko ere.

Gurasoen kasuan, ikasleen hizkuntza erabileran familiak duen garrantzia bereziki azpimarratu nahi dugu. Horren harira, Ikastolako Gurasoen Euskara Batzordea lanean ari da, eta aurten ere indar berezia jarriko da geletako ordezkari eta gainerako gurasoen parte-hartzean. Txosten honen amaieran duzue batzordeak sorturiko dekalogoa.

Guraso euskaldunek beren artean euskara erabiliz modurik eraginkorrena dute seme-alabengan ahalik eta hizkuntza erabilera eta gaitasun onena ziurtatzeko. Zaindu hizkuntza ikastolako eremu guztietan, mesedez.

Guraso erdaldunek ere, euskararekiko interesa erakutsiz eta seme-alaben arteko euskarazko erabilerak oro har sustatuz (euskarazko komunikabideak adibidez), seme-alaben euskararen erabileran modu positibo batean eragin dezakete. Zer esanik ez euskara ikastera animatzen badira. Zentzu horretan, Euskararen erabileraren inguruko ardurarekin jarraiki, aurten ere **Gurasoentzat euskara ikastaroa** eskainiko da. Zuetariko bakoitzak euskaraz hitz egiteko egiten duen saiakerak zuen seme-alabentzat duen garrantziaz jabetuta, euskara maila hobetu edo ezagutza gutxienekoa jaso nahi duen gurasoarentzat ikastaroak eskainiko ditugu, ahal dela, ikastolan bertan.

Ikasturtearen arabera, Euskaraz Bizi proiektuaz gain, garrantzia berezia hartuko duten ekimenak bizitzen ditugu Euskal Herrian, hala nola, **Euskaraldia** eta **Korrika**. Ikastolak dagokion bakoitzean ekimen horietan parte hartuko du modu ofizialean, eta gure ikasleekin ere landu eta ospatuko ditugu. Horretaz gain, guraso guztiei luzatu nahi dizuegu parte hartzeko gonbitea, baita zuen seme-alabekin bizitzekoa ere.

14. OSASUN ARRETA

OSASUN OROKORRA

MEDIKAZIOA EMATEKO BAIMENA

Aurretik osasun-fitxaren bitartez adierazi zenigutena aplikatuko dugu aurten ere ikasleei botika ematerako orduan. Orduz geroztik **aldaketaren bat eman bada** (ikaslearen osasun egoera, har ditzakeen botikak...) lehenbailehen idatziz adieraz diezaguzue gure datuak eguneratu ditzagun eta ikasleari behar bezalako arreta eskain diezaiogun. Osasun-fitxarrik bete ez baduzue, Osakidetza medikuek eta Hezkuntza Saileko ordezkariak prestatutako fitxa helaraziko dizuegu. Bertan bi atal nagusi dituzue:

- Lehenengo atala krisi egoera bat sorraraz dezaketen gaixotasunen bat dutenek bete behar dute. Hala denean, ekar ezazue arren medikuaren txostena. Bertan, ikasleak krisiren bat izanez gero Ikastolako kideok nola jokatu behar dugun adierazi behar da.
- Bigarrena orokorra da, denek betetzea eskatzen dizueguna. Bertan, gurasoek adierazi behar duzue Ikastolari baimena ematen diozuen ala ez ikasleari botika emateko:
 - Analgesiko edota antiinflamatorio orokorrak seme-alabari emateko baimena ematen ote duzuen adierazi. **Bai** ala **ez** adieraz ezazue, arren.
 - Gaixotasun kronikoa duelako beste sendagairik ematea eskatzen duzuenean (bronkodilatadoreak...) botikarekin batera medikuaren txostena ere ekar ezazue, arren, botika emateko jarraibideekin.

Fitxa beteta eta sinatuta helaraz iezaiozue tutoreari, arren. ATARIAn duzue argitaratuta eta berau deskargatu eta eskuz bete behar duzue.

15. ERANSKINAK

A) EUSKARAZ BIZIKO DEKALOGOEA

1. IZAN EREDU

Umeek ez dituzte aginduak maite, ereduak kopiatzen dituzte. Beraz, gurasook izan behar dugu eredu.

2. IKASTOLA EUSKARA ERABILTZEKO GUNEA

Ikastola gune egokia da euskara erabiltzeko, baldintza egokiak ditu: ezagutza altua eta jarrera baikorra du jendeak. Askorentzat gune egoki bakarrenetakoa da euskaraz aritzeko.

3. ERABILI EDO SAIATU

Nork bere gaitasunaren arabera erabil dezake euskara. Ulertzen duenak besteoi euskaraz egitea oztopatu gabe, zerbait dakienak euskaraz erantzun errazak emanez...

4. LEHEN HITZA EUSKARAZ

Egunon! Agur! Zer moduz! batekin hasteak euskaldun bezala identifikatzen zaitu eta gure lehen irudia da garrantzitsuena.

5. GUZION ESKU

Hizkuntzaren erabilera ekintza kolektiboa da beti. Adostasunera irits gaitezke gure solaskideekin.

6. JOERA ALDATU

Hauts ditzagun egoera hauek: 4 euskaldun+ erdaldun bat= gaztelaniaz. Edo are larriagoa dena 4 euskaldun= gaztelaniaz.


7. GOGOZ EKIN BIDEARI

Motibazioak, ezagutzak eta erabilerak elkar elikatzen dute. Euskara erabiltzen den lekuan ezagutza handitzen da eta ez dakitenek ikasteko motibazioa handitzen da. Baikortasuna, berriz, motorra da.

8. URRATSEZ URRATS

Bakoitzak bere egoera eta beharren arabera ikas dezake euskara. Ez dakiena ikasten has daiteke, gutxi dakienak erabilera eta ezagutza hobetu ditzake ikastolan eta dakienak besteei lagundu diezaieke erabileran.

B) SMARTPHON-EN ERABILERARI BURUZKO DEKALOGOIA



teknoiz
Zurriola Ikastola Gurea Ikastola

SMARTPHONA ZERGATIK ETA ZERTARAKO?

- ZENBAT ETA BERANDUAGO EMAN HOBE** HAURREN BURMUINA EZ DAGO BIOLOGIKOKI PRESTATUTA.
- SMARTPHONA EZ DA JOSTAILU BAT** EZ EMAN OPARI GISA.
- SMARTPHONAK MENPEKOTASUNA SORTZEN DU** UTZ DIEZAIEGUN GURE SEME-ALABEI BIZITZA GOZATZEN ETA ASKE IZATEN.
- AURREZ AURREKO GIZA-HARREMANAK GUTXITZEN DITU** PANTAILAK EZ DAITEZELA HORIEN ETA BESTELAKO BIZIPENEN ORDEZKO IZAN.
- INTERNETERAKO SARBIDEAK HAINBAT ARRISKU DITU** ZIBER-JAZARPENA, SEXU-JAZARPEN BIRTUALA, BIOLENTZIA ETA SEXU EDUKI DESEGOKIAK...
- ONDO INFORMATUTA EGOTEA DA, ERABILERA EGOKIA SUSTATZEKO GAKOA** OSO TRESNA INDARTSUA DA. HAURREK EMANGO DIOTEN ERABILERA GURE ESKUETATIK KANPO GERATZEKO ARRISKUA HANDIA DA. APLIKAZIO ETA JOLASAK ERABILTZEKO GUTXIENEO ADINA EZAGUTZEA GURE ARDURA DA.
- GOGORATU: HELDUAK EREDU GARA** ETXEAN MUGIKORRIK GABEKO UNE ETA EREMUAK BERMATU. MUGIKORRAREN ERABILERAZ HAUSNARTU. EZ EDUKI UNEORO MUGIKORRA ESKUETAN.
- SMARTPHONA EMATEKO ERABAKIA SOZIALA DA** GURASOEN ARTEKO HITZARMENEN "DENEK DUTE" ARGUDIOA AHULTZEN DUTE. ERABAKIA GUREA DA.

Ohar honen gaztelaniazko bertsioa [bertan](#) duzue irakurgai.
La versión en castellano de este documento está disponible [aquí](#).